

Modificación de las Directrices de 14 de septiembre de 2022, del Consejo de Facultad de la Facultad de Derecho sobre “Formación práctica integral” del Grado en Derecho y del Grado en Relaciones Laborales

Exposición de motivos

La realización de prácticas externas constituye un elemento formativo de primer orden porque el contacto con la realidad jurídica y los profesionales del sector aportan un valor imprescindible. En este sentido, la Facultad de Derecho de la Universidad de Deusto está muy comprometida con esta formación complementaria que promueve y fomenta y por ello, el Consejo de Facultad aprobó en sesión ordinaria de 14 de septiembre de 2022 unas directrices de procedimiento interno que proporcionan una organización eficiente de las mismas.

Además, la Facultad de Derecho ha venido organizando a través del Servicio de Orientación Profesional (SOP) diversos talleres de preparación para las prácticas y de orientación al empleo que a partir de ahora deberán realizarse en los términos que estas directrices establecen como preparación necesaria para una correcta realización de las prácticas externas.

Igualmente, la Facultad está organizando actividades experienciales con la realidad jurídica asistiendo a juicios, visitando empresas o entidades sociales que a partir de ahora serán condición para realizar prácticas externas.

Por ello, transcurrido más de un año desde la aprobación de aquellas Directrices, la Facultad de Derecho ha considerado necesario actualizarlas para dar respuesta a las diferentes problemáticas que han venido surgiendo, fruto de la gestión y desarrollo de las prácticas; en aras de alcanzar un grado de seguridad jurídica deseable.

A los efectos de estas Directrices sigue vigente el art. 8 del Acuerdo 2/2016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico, por el que se aprueba la normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer y segundo ciclo impartidos en la Universidad de Deusto (BOUD núm. 63) que regula las condiciones específicas de las prácticas externas en los estudios de Grado y Posgrado en todas sus modalidades. El Acuerdo 3/2017, de 5 de abril, del Consejo de la Facultad de Derecho, por el que se adopta la Normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer ciclo y segundo ciclo impartidos en ella (BOUD nº 70), regula las particularidades de las prácticas externas curriculares y extracurriculares en los estudios de primer ciclo (Grado, PFC y PCEO) de la Facultad de Derecho.

Las presentes directrices derogan las Directrices de 18 de julio de 2018, del Consejo de Facultad de la Facultad de Derecho sobre el procedimiento interno de las Prácticas Externas de la Facultad de Derecho.

I.Objetivo y ámbito de aplicación

El objetivo de las prácticas en la Facultad de Derecho consiste en “permitir a los estudiantes aplicar y complementar los conocimientos adquiridos en su formación académica, favoreciendo la adquisición de competencias que los preparen para el ejercicio de actividades profesionales, faciliten su empleabilidad y fomenten su capacidad de emprendimiento” (art. 2.1º RD 592/2014, de 11 de julio, por el que se regulan las prácticas académicas externas de los estudiantes universitarios).

Estas directrices son aplicables a las prácticas curriculares realizadas dentro de la asignatura «Prácticas» o “Prácticas Profesionales” del Plan de Estudios del Grado en Derecho y del Plan de Estudios del Grado en Relaciones Laborales, incluyendo los estudios diseñados en Programación Formativa Combinada (PFC). Asimismo, estas normas son aplicables a las prácticas extracurriculares que realicen con carácter voluntario los estudiantes de estas titulaciones durante su período de formación, con las excepciones correspondientes a su diferente naturaleza.

II.Modalidades

Las prácticas curriculares son una actividad integrante del Plan de Estudios y corresponden a créditos de naturaleza optativa en el caso del Grado en Derecho y de naturaleza obligatoria en el caso del Grado en Relaciones Laborales.

Las prácticas extracurriculares, de carácter voluntario, no forman parte del Plan de Estudios; no obstante, cuando lo solicite el estudiante, su realización será recogida en el Suplemento Europeo al Título. En todo caso, se requiere cumplir con los requisitos previstos y disponer de la autorización previa correspondiente para su realización. Dicha autorización será competencia de la coordinación de prácticas de la Facultad de Derecho.

III.Duración

1. De acuerdo con la Memoria de Verificación aprobada en Derecho y la Memoria de Verificación aprobada en Relaciones Laborales, la duración de las prácticas curriculares será la equivalente a 150 horas de trabajo del alumnado (6 ECTS).
2. A efectos de su inclusión en el Suplemento Europeo al Título, las prácticas extracurriculares podrán tener una duración máxima de 300 horas.
3. Asimismo será posible realizar en el Grado en Derecho “Prácticas profesionales” con una duración de 30 ECTS, esto es 750 horas; y en el Grado en Relaciones Laborales, prácticas de “Iniciación profesional” de 24 ECTS, esto es, 600 horas.
4. Las prácticas curriculares de 6 créditos podrán tener lugar en dos momentos diferentes.

En el caso de los estudios de grado y grado con especialidad: con carácter

adelantado (tras la convocatoria ordinaria de tercero hasta el comienzo del nuevo curso) o durante el primer semestre del último curso. En el caso del PCEO de Relaciones Laborales y Derecho siempre con carácter adelantado.

5. Las prácticas extracurriculares únicamente podrán tener lugar durante el segundo semestre (en los meses de enero a junio); a excepción de aquellas que sean una extensión de las curriculares.

Con motivo de los diferentes planes de estudio, el contenido de este apartado podrá exceptuarse para los y las estudiantes matriculados/ as en el Campus de Donosti / San Sebastián

6. Las prácticas curriculares de 30 créditos, independientemente de seguir estudios de grado o de doble grado, tendrán lugar durante el semestre en que se cursan las asignaturas optativas correspondientes a la titulación del estudiante.

IV. Proyecto formativo

En el caso de las prácticas curriculares, el proyecto formativo ha de contener, al menos, las competencias asignadas a la asignatura de Prácticas en la correspondiente Memoria de Verificación.

El proyecto formativo seguirá el modelo que figura en el ANEXO I

V. Convenio de Cooperación Educativa

El Convenio de Cooperación Educativa seguirá el modelo del ANEXO II.

VI. Destinatarios y requisitos

1. Para que las prácticas externas sean consideradas como curriculares es necesario que el/la estudiante esté matriculado en la asignatura «Prácticas» o bien “Prácticas profesionales” del correspondiente curso de Grado y las correspondientes a “Iniciación profesional” del Grado en Relaciones laborales.

2. Los estudiantes podrán iniciar sus prácticas curriculares una vez finalizada la convocatoria ordinaria o, en su caso, la extraordinaria del curso previo al que pertenezca la asignatura de Prácticas en el correspondiente Plan de Estudios. En este caso, deberán cumplirse todos los requisitos de la normativa académica general y formalizar la matrícula en el período habilitado para ello y en las condiciones estipuladas por Secretaría General.

3. Constituye responsabilidad del alumnado conocer la normativa académica aplicable a la realización de las prácticas; la alegación de su desconocimiento, en ningún caso, eximirá de su aplicación.

4. Será necesario haber realizado los correspondientes talleres de Formación práctica integral organizados por el Servicio de Orientación Profesional (SOP) dirigidos a la preparación de curriculum vitae y carta de presentación, entrevista profesional, marca personal y laboral y/o aquellos que la Facultad determine y anuncie con antelación suficiente dirigidos a este fin.

5. Igualmente será condición indispensable haber realizado las experiencias de la realidad jurídica que la Facultad organice a estos efectos.

6. Para la realización de las prácticas extracurriculares, será indispensable haber cursado previamente las prácticas curriculares correspondientes (conforme al plan de estudios vigente).

Esta regla no resultará de aplicación para los estudiantes del Grado en Derecho que hayan cursado el programa de movilidad, que podrán solicitar el reconocimiento de prácticas extracurriculares autogestionadas, conforme a las reglas ordinarias.

Con motivo de los diferentes planes de estudio, el contenido de este apartado podrá exceptuarse para los y las estudiantes matriculados / as en el Campus de Donosti / San Sebastián.

El alumnado que se acoja al programa de prácticas de 30 créditos no podrá realizar prácticas extracurriculares.

VII. Prácticas internacionales

La Facultad de Derecho admite la realización de la asignatura de Prácticas en modalidad internacional bien en el marco del programa Erasmus o en otro programa de movilidad, incluida la práctica de Clínica Jurídica.

VIII. Tutores de las prácticas externas

La designación de los tutores académicos será realizada dentro del proceso de planificación y asignación docente de la Facultad.

La designación del tutor de la entidad colaboradora será realizada por ésta y supervisada por el Coordinador de Prácticas.

IX Seguimiento e informes de las prácticas externas

1. El tutor académico debe realizar las tutorías que se establezcan con el estudiante; en ellas se asegurará de que el proyecto formativo del estudiante se está desarrollando adecuadamente.

2. Una vez transcurrida la mitad del período de duración de las prácticas, el tutor académico contactará con el estudiante para velar por el buen desarrollo de las prácticas.

3. El/la tutor/a académico/a remitirá un informe intermedio y otro final sobre el desarrollo de las prácticas a la persona responsable de la coordinación de Prácticas.

4. Las prácticas extracurriculares, dada su especial naturaleza, contarán con el seguimiento y control de la Facultad, a través de la persona encargada de la coordinación de las Prácticas.

X. Evaluación de las prácticas externas

1. El tutor académico evaluará las prácticas desarrolladas por los estudiantes que autorice en cada caso y remitirá esta calificación al Coordinador de Prácticas de la Facultad.
2. Para la evaluación, el/la tutor/a académico/a tendrá en cuenta el seguimiento llevado a cabo, el informe del tutor/a de la entidad externa y la memoria final elaborada por cada estudiante.
3. Para la superación de la asignatura el/la tutor/a académico/a verificará que el estudiante ha estado presente en la entidad colaboradora al menos un 75% de las horas estipuladas en el Plan de Estudios y que se han adquirido las competencias de la asignatura.
4. En el caso de que la asignatura no sea superada el Coordinador de Prácticas indicará al estudiante las actividades a desarrollar para acreditar la adquisición de las competencias, bien completando o repitiendo, en su caso, la totalidad de la asignatura.
5. El/la Coordinador/a de Prácticas de la Facultad de Derecho será el responsable de la elaboración de la Guía de Aprendizaje y encargado de la cumplimentación de las actas de calificación de la asignatura de Prácticas.
6. Las prácticas extracurriculares serán certificadas sin calificación. Por ello, el alumnado únicamente habrá de remitir a su tutor/a una memoria abreviada de las tareas acometidas en la sede de prácticas.

XI. Adjudicación de las prácticas externas

1. La persona coordinadora de prácticas se encargará de determinar el procedimiento de solicitud y adjudicación de las prácticas de acuerdo con la nota media del alumnado y teniendo en cuenta la preferencia por ellos expresada.
2. Las prácticas extracurriculares, considerando su naturaleza voluntaria, serán autogestionadas, siendo el alumnado responsable de proponer su propia sede a la Coordinación de Prácticas.

XII. Acreditación de formación práctica integral

1. La Facultad de Derecho expedirá una acreditación de "Formación práctica integral" a todos los estudiantes que aprueban la asignatura de prácticas externas (6 ECTS) y una acreditación de "Formación práctica integral avanzada" a quienes superen la asignatura de Prácticas profesionales (30 ECTS) del Grado en Derecho así como la correspondiente a "Iniciación profesional" en el Grado en Relaciones Laborales.
2. En caso de que el/la estudiante no haya cumplido las actividades del Programa de Formación Práctica Integral en las fechas y condiciones establecidas por el equipo de prácticas deberá procurarse por sí mismo/a la sede

de prácticas, si pretende cursarlas.

XIII. Orientación para el empleo y asesoramiento de carrera profesional

El Servicio de Orientación Profesional de la Facultad de Derecho ofrecerá a los estudiantes de los dos últimos años de la titulación sesiones de orientación al empleo y de asesoramiento de carrera profesional. La Facultad de Derecho expedirá una acreditación de “Orientación al empleo” al finalizar los estudios con indicación expresa de aquellas sesiones a las que el estudiante haya asistido.

XIV. Transitoriedad

Los estudiantes que en el curso 23-24 se encuentren matriculados en segundo y tercer curso les será aplicable este procedimiento de formación práctica integral con las adaptaciones necesarias.

XV. Disposición derogatoria

Las presentes directrices derogan las Directrices de 14 de septiembre de 2022, del Consejo de Facultad de la Facultad de Derecho sobre el procedimiento interno de las Prácticas Externas de la Facultad de Derecho.

Zuzenbide Fakultateko Kontseiluaren 2022ko irailaren 14ko Zuzenbideko Graduoko eta Lan Harremanetako Graduoko "Prestakuntza praktikoa integralari" buruzko Gidalerroak aldatzeko proposamena.

Zioen azalpena

Kanpoko praktikak egitea garrantzirik handieneko prestakuntza-elementua da, errealitate juridikoarekiko eta sektoreko profesionalekiko harremanek ezinbesteko balioa ematen baitiote ikasleari. Alde horretatik, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatea oso konprometituta dago prestakuntza osagarri horrekin eta sustatu eta bultzatu egiten du ikasleen artean. Hori dela eta, Fakultateko Kontseiluak, 2022ko irailaren 14ko ohiko bilkuran, barne prozeduraren gidalerroak onartu zituen, praktiken antolaketa eraginkorra eskaintzeko.

Horrez gain, Zuzenbide Fakultateak, Lanbiderako Orientazio Zerbitzuaren bitartez, praktikak egiteko eta laneko orientaziorako hainbat tailer prestatu eta antolatu ditu orain arte. Aurrerantzean, gidalerro hauek ezartzen duten moduan egin beharko dira praktika eta tailer horiek.

Era berean, Fakultatea esperientzia-jarduerak antolatzen ari da errealitate juridikoari lotuta: epaiketetara joatea, enpresak edo gizarte erakundeak bisitatzea. Hemendik aurrera kanpoko praktikak egiteko baldintza izango da esperientzia-jarduera horiek egin izana.

Hori dela eta, gidalerro horiek onartu zirenetik urtebete baino gehiago igaro ondoren, Zuzenbide Fakultateak beharrezkotzat jo du gidalerro horiek eguneratzea, praktiken kudeaketaren eta garapenaren ondorioz sortu diren arazoei erantzuteko, segurtasun juridikoan izan beharreko maila lortze aldera.

Gidalerro hauen ondorioetarako, indarrean jarraitzen du Deustuko Unibertsitatean ematen diren lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko Kontseilu Akademikoaren abenduaren 13ko 2/2016 Erabakiaren (DUAO, 63. zk.) 8. artikulua, graduoko eta graduondoko ikasketetan, modalitate guztietan, kanpoko praktiken baldintza espezifikoak arautzen dituenak. Zuzenbide Fakultateko Kontseiluaren apirilaren 5eko 3/2017 Erabakiak, lehenengo zikloko eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudia onartzen duenak (DUAO, 70. zk.), Zuzenbide Fakultateko lehenengo zikloko ikasketetan (Gradua, Prestakuntza programa konbinatua eta Ikasketa ofizialen programazio bateratua) curriculumaren barruko kanpoko praktiken eta curriculumetik kanpoko praktiken berezitasunak arautzen ditu.

Gidalerro hauek Zuzenbide Fakultateko Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko Kanpoko praktiken barne prozedurari buruzko Gidalerroak indargabetzen dituzte.

I. Helburua eta aplikazio esparrua

Zuzenbide Fakultateko praktiken helburua da "ikasleei beren prestakuntza akademikoan lortutako ezagutzak aplikatzeko eta osatzeko aukera ematea, lanbideko jarduerak egiteko prestatzen dituzten gaitasunak eskuratzea sustatzeko, enplegarritasuna errazteko eta ekintzailtzarako gaitasuna sustatzeko" (unibertsitateko ikasleentzako kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen uztailaren 11ko 592/2014 EDaren 2.1. art.).

Gidalerro hauek Zuzenbideko Graduko ikasketa planaren eta Lan Harremanetako Graduko ikasketa planaren "Praktikak" edo "Lanbideko praktikak" irakasgaiaren barruan egiten diren curriculumaren barruko praktikei aplikatzen zaizkie, baita Programazio Konbinatuan diseinatutako ikasketei ere. Era berean, arau horiek aplikatzen zaizkie ikasleek titulazio horietan prestatzen ari diren bitartean borondatez egiten dituzten curriculumaz kanpoko praktikei ere, izaera desberdinei dagozkien salbuespenekin.

II. Modalitateak

Curriculumaren barruko praktikak ikasketa planaren parte dira eta hautazko kredituak dira Zuzenbideko Graduaren kasuan eta nahitaezko kredituak dira Lan Harremanetako Graduaren kasuan.

Curriculumetik kanpoko praktikak, borondatezkoak, ez dira ikasketa planaren barruan sartzen; hala ere, ikasleak hala eskatzen duenean, Europako Tituluaren Gehigarrian sartuko dira. Nolanahi ere, ezarritako baldintzak bete behar dira eta horiek egiteko alde aurretiko baimena eduki behar dute. Baimen hori ematea Zuzenbide Fakultateko praktiken koordinazioaren eskumena izango da.

III. Garapena

1. Zuzenbidean onartutako egiaztapen-txostenaren eta Lan Harremanetan onartutako egiaztapen-txostenaren arabera, curriculumaren barruko praktiken iraupena ikaslearen lanaren 150 orduren baliokidea izango da (6 ECTS).

2. Tituluaren Europako Gehigarrian sartzearen ondorioetarako, curriculumetik kanpoko praktikek 300 orduko iraupena izan dezakete gehienez.

3. Era berean, "Lanbideko praktikak" egin ahal izango dira Zuzenbideko Graduan, 30 ECTSko iraupenekoak, hau da, 750 orduko iraupenekoak; eta Lan Harremanetako Graduan, "Lanbide Hastapeneko" praktikak egin ahal izango dira, 24 ECTSkoak, hau da, 600 ordukoak.

4. 6 kredituko curriculumaren barruko praktikak bi unetan egin ahal izango dira.

Graduko eta graduko eta espezialitateko ikasketen kasuan: aurreratuta (hirugarren mailako ohiko deialdiaren ondoren, ikasturte berria hasi arte) edo azken ikasturteko lehenengo seihilekoan. Lan Harremanetako eta Zuzenbideko ikasketa ofizialen programazio bateratuaren kasuan, beti egingo dira aurreratuta.

5. Curriculumetik kanpoko praktikak bigarren seihilekoan bakarrik egin ahal izango dira (urtariletik ekainera bitartean), curriculumaren barruko praktiken luzapen direnetan izan ezik.

Ikasketa plan desberdinak direla eta, atal honen edukia salbuetsi ahal izango da Donostiako campusean matrikulatutako ikasleen kasuan.

6. 30 kredituko curriculumaren barruko praktikak, berdin dio graduko edo gradu bikoitzeko ikasketak egin, ikaslearen titulazioari dagozkion hautazko irakasgaiak egiten diren seihilekoan egingo dira.

IV. Prestakuntza proiektua

Curriculumaren barruko praktiken kasuan, prestakuntza proiektuak egiaztapen-txostenean Praktiketako irakasgaiari esleitutako gaitasunak jaso beharko ditu gutxienez.

Prestakuntza proiektuak I. ERANSKINEAN agertzen den eredia jarraituko du.

V. Hezkuntzako lankidetzaren hitzarmena

Hezkuntzako lankidetzaren hitzarmenak II. ERANSKINEAN agertzen den eredia jarraituko du.

Jasotzaileak eta eskakizunak

1. Kanpoko praktikak curriculumaren barrukotzat jotzeko, ikasleak "Praktikak" irakasgaiaren matrikulatuta egon behar du edo dagokion graduko mailako "Lanbideko praktikak" eta Lan Harremanetako Graduak "Lanbide Hastapenak" irakasgaietan

2. Ikasketa planean Praktiken irakasgaiak eskaintzen den aurreko mailako deialdi arrunta edo, bestela, dagokion ezohiko deialdia amaitu eta hasi ahal izango dituzte ikasleek curriculumaren barruko praktikak. Halakoetan, arau akademiko orokorretako baldintza guztiak bete eta matrikula horretarako ezarritako epean eta Idazkaritzak Orokorrak ezarritako baldintzetan formalizatu beharko da.

3. Ikaslearen ardura da praktikaldirako aplikagarriak diren arau akademikoak ezagutzea; arau akademikoen inguruko ezjakintasuna alegatzeak ez du inola ere haiek aplikatzetik salbuetsiko.

4. Beharrezkoa izango da ikasleak Lanbiderako Orientazio Zerbitzuak antolatutako prestakuntza praktikoko integralko lantegiak eginda izatea, curriculum vitae eta aurkezpen-gutuna, elkarrizketa profesionala, marka pertsonala eta lanekoa prestatzeko, eta/edo Fakultateak horretarako behar besteko aurrerapenez zehazten eta iragartzen dituenak eginda edukitzea.

5. Era berean, nahitaezko baldintza izango da Fakultateak helburu horietarako antolatzen dituen errealitate juridikoaren esperientziak eginda izatea.

6. Curriculumetik kanpoko praktikak egiteko, ezinbestekoa izango da alde aurretik dagozkion curriculumaren barruko praktikak eginda izatea (indarrean

dagoen ikasketa planaren arabera).

Arau hori ez zaie aplikatuko mugikortasun programa egin duten Zuzenbideko Graduko ikasleei. Ikasle horiek curriculumetik kanpoko praktika autogestionatuak aitortzeko eskatu ahal izango dute, arau arrunten arabera.

Ikasketa plan desberdinak direla eta, atal honen edukia salbuetsi ahal izango da Donostiako campusean matrikulatutako ikasleentzat.

30 kredituko praktiketako programa egiten duten ikasleek ezin izango dute curriculumetik kanpoko praktikarik egin.

VII. Nazioarteko praktikak

Zuzenbide Fakultateak Praktikak irakasgaia nazioarteko mugikortasunaren barruan egitea onartzen du, bai Erasmus programaren barruan, bai beste mugikortasun programa batean, Klinika Juridikoko praktikan barne.

VIII. Kanpoko praktiketako tutoreak

Tutore akademikoen izendapena Fakultateko plangintza eta irakaskuntza esleipenaren barruan egingo da.

Erakunde laguntzaileko tutorea erakundeak berak aukeratuko du eta praktiketako koordinatzaileak gainbegiratuko du.

IX Kanpoko praktiken jarraipena eta txostenak

1. Tutore akademikoak ikaslearekin adosten dituen tutoretzak egin beharko ditu; saio horietan, ikaslearen prestakuntza proiektua behar bezala garatzen dela ziurtatuko da tutorea.

2. Behin Praktikaldiaren erdia igarota, tutore akademikoa ikaslearekin harremanetan jarriko da praktiken garapena egokia dela ziurtatzeko.

3. Tutore akademikoak praktiken garapenari buruzko tarteko txostena eta azken txostena bidaliko dizkio praktiken koordinazioaz arduratzen den pertsonari.

4. Curriculumetik kanpoko praktikak, bereziak direnez, Fakultatearen jarraipena eta kontrola izango dute, praktikak koordinatzeaz arduratzen den pertsonaren bitartez.

X. Kanpoko praktiken ebaluazioa

1. Tutore akademikoak kasu bakoitzean baimendutako ikasleak egindako praktikak ebaluatuko ditu eta Fakultateko praktiketako koordinatzaileari bidaliko dio kalifikazioa.

2. Ebaluazioa egiteko, tutore akademikoak kontuan izango ditu egindako jarraipena, kanpoko entitateko tutorearen txostena eta ikasle bakoitzak egindako azken txostena.

3. Irakasgaia gainditzeko, tutore akademikoak egiaztatuko du ikaslea entitate kolaboratzailean egon dela ikasketa planean ezarritako orduen % 75ean gutxienez eta irakasgaiari dagozkion gaitasunak bereganatu dituela.
4. Irakasgaia gainditzen ez bada, praktiketako koordinatzaileak gaitasunak eskuratu dituela frogatzeko egin beharko dituen jarduerak adieraziko dizkio ikasleari, hala dagokionean, irakasgaia osatzeko edo osoa errepikatzen.
5. Zuzenbide Fakultateko praktiketako koordinatzailea arduratuko da ikasgida prestatzeaz eta praktiketako irakasgaiko kalifikazio aktak betetzeaz.
6. Curriculumetik kanpoko praktikak kalifikaziorik gabe ziurtatuko dira. Horregatik, ikasleek tutoreari praktiken egoitzan egindako lanen memoria laburtua baino ez diote bidali beharko.

XI. Kanpoko praktiken esleipena

1. Praktiketako koordinatzailea arduratuko da praktikak eskatzeko eta esleitzeko prozedura zehazteaz, ikasleen batez besteko notaren arabera eta haiek adierazitako lehentasuna kontuan hartuta.
2. Curriculumetik kanpoko praktikak, borondatezkoak direla kontuan hartuta, autokudeatu egingo dira, eta ikasleek beren egoitza proposatuko diote praktiketako koordinatzaileari.

XII. Prestakuntza praktikoko integralaren akreditazioa

1. Zuzenbide Fakultateak "Prestakuntza praktikoko integrala" egin izanaren egiaztatzea emango die kanpoko praktiketako irakasgaia (6 ECTS) gainditzen duten ikasle guztiei eta "Prestakuntza praktikoko integral aurreratua", Zuzenbideko Graduko "Lanbideko praktikak" (30 ECTS) eta Lan Harremanetako "Lanbide hastapenak" irakasgaiak gainditzen dituztenei.
2. Ikasleak ez baditu Prestakuntza Praktikoko Integraleko Programako jarduerak bete praktiketako taldeak ezarritako data eta baldintzetan, bere kabuz lortu beharko du praktiken egoitza, egin nahi baditu.

XIII. Enplegurako orientazioa eta lanbideko karrerarako aholkularitza

Zuzenbide Fakultateko Lanbiderako Orientazio Zerbitzuak enplegurako orientazio eta lanbideko karrerarako aholkularitza saioak eskainiko dizkie titulazioko azken bi mailako ikasleei.

Zuzenbide Fakultateak "Enplegurako Orientazioa" egin izanaren akreditazioa emango die ikasleei ikasketak amaitzean, ikasleek bertaratuta egin dituzten saioak espresuki adierazita.

XIV. Egokitzapenak

2023-2024 ikasturtean bigarren eta hirugarren mailan matrikulatuta dauden ikasleei prestakuntza praktikoko integraleko prozedura hori aplikatuko zaie,



Facultad de Derecho
Zuzenbide Fakultatea

beharrezko egokitzapenak eginda.

XV. Xedapen indargabetzailea

Gidalerro hauek Zuzenbide Fakultateko Kontseiluaren 2022ko irailaren 14ko Kanpoko praktiken barne prozedurari buruzko gidalerroak indargabetzen dituzte.